

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko martxoak 25ko bileraren ondorio nagusien sintesia

Puntu bakarra: Hondakinak biltzeko kontratuak multzokatzeko proiektua

Laguntza teknikoak, Ekoiure-Inguru-Cimas ABEEK, eskualdeko etxeko hondakinak biltzeari buruzko kontratazio multzokatuaren proiektuaren laburpen exekutiboa aurkeztu du.

Aldez aurretik, dokumentazio hau igorri zitzaaien udal arduradunei: Zerbitzu berriaren diseinua; Txosten ekonomikoa; Zerbitzu multzokatua ezartzeko bide-orria; Kronograma; Zerbitzua erregulatzeko araudia; Baldintza teknikoen plegua; Baldintza administratiboen plegua.

Zenbait gai argitu eta baloratu ostean, udalen iritziei buruzko erronda egin da. Hauek dira ondorioak: 1) Udal guztiak daude zerbitzu multzokatuan sartzearen alde 2016tik aurrera, Zaratamo izan ezik, une honetan ezin duelako erabaki, eta beste bat, 2018an sartuko dena, orain duen kontratua amaitzean; 2) Bilketa zerbitzuaren kudeaketa-aginduari buruzko Osoko Bilkuraren erabakia hurrengo legegintzaldiaren hasieran hartuko da; 3) Une horretara arte, ikerketaren ondorioak udalen barruan partekatuko dira, erabakiak aurreratu eta adosteko, eta, hala behar dutenean, Eskualde Bulegoaren laguntza izango dute.